

21. FITXA BIZKAIA – Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeei zuzenduriko dirulaguntzak 2024. eta 2025. urteetan kirol instalazioetan inbertsioak egiteko.

Nori zuzendua: Bizkaiko udalak, mankomunitateak, kiroleko udal erakunde autonomoak eta udal-sozietate publikoak.

Sarbide-esteka: appstac.ebizkaia.eus/eu/hasiera

Erreferentziako araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 41/2024 FORU DEKRETUA, apirilaren 18koa, diru-laguntzak emateko oinarri-arauak eta deialdia onartzen dituena. Diru-laguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeei, 2024. eta 2025. u](#)

Eremuak: Kirola

Zenbatekoa: 2.900.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/05/23

Laburpena

Dirulaguntza hauen xedea 2024. eta 2025. urteetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeek kirol instalazioetan inbertsioak egitea da.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Inbertsioetat hartuko dira: egitura aldatzea, espazioen bizigarritasuna egokitzea edo hobetzea, ekipamendua ordeztzea eta dauden instalazioak birbanatzea barne.

Erakunde bakoitzak dirulaguntzarako eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diru-laguntzaren eskaera eragin duten jarduerak 2024an, 2025ean edo 2024-2025eko epean egin beharko dira.

Laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzaren gehieneko ehunekoak proiektuaren aurrekontu araztuaren % 75era artekoa izango da, eta gehienez 300.000 eurokoa.